AZKEN ORDUKO BERRIAK

AINARA ETXABIDE SAGARTZAZU
DBH 1. eta 2. kurtsoak Akzesita
Berako Labiaga Ikastola

Goizeko 5ak dira, Euskal irratian lehenagoko kantu zaharrak aditzen nabil. Peio eta Pantxoaren "*Itziarren semea*" jarria dute. Eguna ongi hasteko, kantu bikaina. Azken orduko albiste bat eman dute. Kantua eteteko oso larria izan beharra dauka albisteak. Gaza bonbardatu omen dute, su etena hautsiz, israeldarrek. 1.000 lagun inguru hil omen dira. Hala erraten zuen azken orduko albisteak.

Palestinarrek beraien aldetik zerbait jarri dute, hauen askatasun gogoa alde batera utziz, jende gehiago hil eta sufritu ez dadin ahalegin handia egin dute. Lurralde zapaltzaileek, berriz, euren zina hautsi eta armak hartuta bertze hainbertzeko sufrimendua ekartzen duen ekintza egin dute. Konponbidea ahal den onena izan dadin, borrokatu dira baina ehunka ume, emakume eta gizon hil dira azken ordu hauetan. Herri bati eskubide guziak kenduta, aberria lapurtuta... eurek ere eurena dena defendatzeko eskubidea dutenez, armen laguntzaz eta gertatu denaren beldurrez hauek kontra-erasoa egin dute.

Palestinarren lurrak lapurtu eta bertan inposatu zuten euren lurrak zirela eta eurek zeuzkaten eskubide guztiak. Harresi batez estali zuten Palestina eta herri baten askatasun beharra zuela estali zuten. Lurraren interesak direla medio, lur gehiago lortzeko ahaleginak egin dituzte, baina hauek ez diete eurena den lurrak berriz ere kentzeko eskubidea eman, borroka latza eginik eta haiena defendatuz. Gertatzen ari den egoeraren aurrean, su etena egiteko ahalegina egin dute eta israeldarrek onartuta, bakea nagusitu da Palestina eta Israelen artean. Azken ordura arte, euren zina hautsi duten arte. Borroka latza eta odoltsua izango dela ohartarazi dute palestinarrek, su etena ez badute onartzen. Kontra-erasoa egiten badute, hauek ere eraso eginen dutela eta gutxien espero dutenean, eraso bortitza egingo dutela, errespetuz jokatu ez dutelako eta errugabea den jendea hil dutelako. Errepresioan bizitzeaz nazkatuta daudelako.

Ondotik, bertze albiste tragiko bat iragarri dute. 30 urteko emakume bat hil omen da, bere mutil lagunak jipoitu duelako.

Horrenbertzez, jipoitu omen du, perlesia eragin diola eta bi ordu lurrean etzanda egon omen da inoren laguntzarik gabe. Oihuka, ibili omen da, baina tamalez eguerdiko 12ak ziren eta jende guztia lanean dagoen ordu bat da. Lankide bat deika ibili omen da egun osoan eta inork erantzuten ez duenez, pisura joan da. Mutil lagunak ireki omen dio atea eta honek ezer pasa ez balitz bezala ireki

omen du. Etxean ez zegoela erantzun dio, eta alde egin du orduan. Mugikorrera hots egin dio, mugikorrak etxe barruan jo egin du. Susmatzen hasi da, izan ere, neskak beti daramalako alboan mugikorra. Poliziari deitu omen dio eta hauek miaketak egin ondoren, gorpua harrapatu dute. Gizonezkoarentzat urte askotako kondena eskatuko omen dute biktimaren familiak eta lagunek.

Behin maitatu, hurrengoan gorrotatu. “Bai! Zurekin ezkondu nahi dut” hori erratean, betirako omen dela erraten duzu. Betirako maitasuna. Urte asko daramatzazu bere alboan, bera laguntzen, gorrotatzen eta maitatzen, baina hiltzera ailegatu behar ote da? Hainbertze une izan dira bere alboan, hainbertze negar, hainbertze momentu goxo, gau, goiz... baina azkenean zertan geratzen da? Maite zaitut erran eta gero jipoitu... ez dago eskubiderik inor hiltzeko, baina guttiago maite duzun pertsona bat hiltzeko.

Hurrengo albisteak krisia du gaia. 100 lagun kaleratu dituzte Arcelor fabrikan.

Krisia dela edota ez dela, azkenean langileak kalera. Aberatsak aberats eta pobreak pobre. Ez dituzte kaleratuko nagusiak, lan guttien egiten duen langilea, lan zikina eta pisutsuena egiten duena kaleratu behar dute. Berdin zaigu 5 diren etxean ala 10, gauza da langile sobera dagoela. Diru falta ikaragarria dago eta nabari da, baina zergatik ordaindu behar ote dute langileek? Euren bizi guzia lanari eskaini badiote? 36 urtez lanean, zergak ordainduz, zergak kitatuz... Eta ordainetan zer? Politikariek ez dituzte kaleratuko, aberatsek ez dute ordainduko... Aurre ikusiz ez dago konponbiderik, aunitz erran baina ezer gutti egiten dute gizarte honetako agintariek. Urteetan zehar esplotatuak izan diren langileak, ordainetan zerbait izateko lan egin dutenak... azkenean lan zikinena eta guttien errespetatuak izaten dira.

Azkenean albistea politika dugu. Zein izango ote da Nafarroako agintaria hurrengo urteetan?

Gauza asko dakartzat burura albiste honen inguruan. Izan ere, nire ikastola ilegalizatua izan da, arrazoi ez zentzuzkoengatik. Euskararen inguruan ezagutzak ematen dituen bertze ikastola bat dugu. Euskara landu nahi dugun ikastetxe bat da eta DBH3 eta DBH4 gabe ezin ditugu bertan eman gure biziko momentu asko. Hasieran, herritik bertze herri batera joatera behartzen gaituzte eta gero ez gaituzte nahi dugun lekuan geratzea uzten. Zentzu askorik ez dago! Baina ikastola da eta bertan momentu on asko pasa ditugu eta pasako ditugu. Daukagun adina eta gero, ikasketak gustuko ez ditugula eta... Gainera gustuko gauza bat ez badigute gozatzen uzten, nola funtzionatzen du gizarte honek?

Horrela ezingo dugu eraiki gizarte berri bat. Dugun irudia eta gero, ezin dugu bertan bizitzeko aukerarik izan. Herri demokratiko batean bizi bagara, demokrazia askorik ez da inon sumatzen...

Albiste kezkagarri aunitz daude munduan eta zer esanekoak denak ere. Gazteak gara hainbat gauzaz ohartzeko, azken finean guk eraikiko dugun gizartean bizi gara. Hobekuntzak egin beharko ditugu lehen baino lehen. Ze mundutan bizi garen jakin beharko dugu. Guk ere hitza daukagula ulertu beharko du jendeak.